

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

E-mail helbide alternatiboak spamari aurre egiteko



HOTMAIL MEZULARITZA ELEKTRONIKO EZAGUNAK proposatu du norberak duen e-postaz gain, harekin lotutako beste bost sortzea. Helbide horiek helbide nagusiaren erabat desberdinak izan daitezke eta foroetan, sare sozialean edo denda birtualean erabil ditza-kegu. Gure posta elektronikoa nagusia arestian aipatutako leku publikoetatik at mantenduko dugunez, spama helbide nagusira bideratzeko aukerak gutxitu egingo dira, eta gehienak helbide alternatiboetara birbideratuko dira. Posta

alternatiboetako batera spam gehiegi iristen bada, ezabatu eta kito!

Gehiegikeriak saihestu ahal izateko, urtero e-mail nagusiari lotutako bost helbide baimentzen dira asko jota, eta eragiketa hori guztira hamabost helbide sortu artean errepika daiteke.

Hotmail ez da bide hau hartu duen enpresa bakarra, Google eta Yahoo enpresak ere horretan ari baitira.

Arkakusoen jauziaren sekretuak

BIZPAHIRU MILIMETROKO tamaina duen intsektu batek nola egin dezake 30 zentimetroko jauzia? Ugaztunengan ezinezkoa den ahalmen hori argitzen saiatu dira ikerlariak, abiadura handiko kamera batek ateratako irudiak erabiliz.

Cambridge-eko Unibertsitateko Gregory Sutton eta Malcolm Burrows ikerlariak arkakusoen hanketako fisiologiaren eta erresilina izeneko proteinaren artean sortzen den sinergian kokatu dute arkakusoen jauziaren arrakasta.

Erresilinak kautxuak baino elastikotasun handiagoa du, eta arkakusoen hanketako tarsus, tibia, femur eta trochanter izeneko zatien bidez, gorputzetik tarsus-era bidaltzen dute energia; eta energia hori tarsus-ean askatzen da palanka gisa jokatu, hau da, gorputza gorantz propulsatuz jatorrizkoa baino askoz ere handiagoa den indarrarekin. Abiatze -indarra hain da handia, non abiatzeko abiadura 1,9 m/s baita.



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Gure arbaso Lucy bi oinetan ibiltzen zen

Etiopian topatu berri duten hiru milioi urteko hanka-hezur txiki batek gauza asko argitu du garai hartako hominidoen higitzeko erari buruz. Bi oinetan edo lautan ibiltzen ote ziren argitzeko balio izan du aurki-kuntzak.

<http://ttiki.com/23294> (Frantsesez)

Zenbat informazio metatu dezake egun gizateriak?

Orain dela hamar urte ez beza-la, egungo informazio gordailu guztiak, edo ia, digitalak dira. Estimazio bitxia eman da argitaratzen *Science* aldizkarian: gizateriak, gaur egun, 295 exaokteto metatu dezake. Exaokteto bat 10^{18} byte dira; beste era batera esanda, CDetan gordeko bage-nu informazio kantitate hori, CD bata bestearen gainean jarrita Lurretik Ilargirako bidea beteko genuke.

<http://ttiki.com/23296> (Frantsesez)

Noiz hasi ginen gizakiok arropa erabiltzen?

Zorrien eboluzioa aztertuz egindako ikerketa batetik ondorioztatu dute gizakiok orain 170.000 urte hasi omen ginela arropa erabiltzen, eta horri esker Afrika utzi eta beste kontinenteetara migratzeko aukera izan genuen.

<http://ttiki.com/23297> (Gaztelaniaz)